

HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO  
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN. MOTA: GOI-  
MAILAKO TEKNIKARIAK, ESPEZIALITATEA: GORPUTZ-HEZKUNTZAKO  
LIZENTZIADUNA.



**1. ZEIN DA ESTATUAREN FORMA POLITIKOA ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN 1. ARTIKULUAREN ARABERA?**

- a. Demokrazia parlamentarioa.
- b. Konstituzio-monarkia.
- c. Monarkia parlamentarioa.
- d. Konstituzio-demokrazia.

**2. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN VIII. TITULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA?**

- a. Lurraldeari dagokionez, estatua udalerrri, probintzia, eskualde eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan antolatzen da.
- b. Udalerrien gobernu eta administrazioa haien alkateei dagokie.
- c. Probintzien mugak aldatu ahal izateko, probintziaren autonomia-erkidegoko parlamentuak onetsi behar du aldaketa.
- d. Udalerrien elkarteak sortu ahal izango dira, probintziak ez direnak.

**3. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA, ERANTZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?**

- a. Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua Vitoria / Gasteiz izango da.
- b. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
- c. Euskal herritar izaera politikoa izango dute, Estatutu honen ondorioetarako, Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.
- d. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari atxiki ahal izango zaizkio guztiz bere lurralde barruan kokaturiko beste lurralde eta udalerrriak, estatutuan bertan ezarritako baldintzak betez gero.

**4. ZEINEK OSATUKO DU EUSKO LEGEBILTZARRA?**

- a. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru proportzionalak, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
- b. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
- c. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru proportzionalak, errolda-sufragio, bozketa aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
- d. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak, bozketa unibertsal, murriztu, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.



**5. ZERGAK HARMONIZATZEARI DAGOKIONEZ, ZERGA-ARAUAK SORTZEKO ORDUAN ZER EGIN BEHAR DUTE LURRALDE HISTORIKOEK?**

- a. Aurrekontu orokorrak Estatuko gainerako lekuetako aurrekontuen parean mantendu behar dituzte.
- b. Aurrekontu Orokorren Legearen arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak, ekonomia-itun honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.
- c. Tributuen Lege Orokorren arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak, ekonomia-itun honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.
- d. Ez dute benetako zerga-presio orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar.

**6. LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU ORGANOEK ZER ARLOTAN DUTE ESKUMEN ESKLUSIBOA?**

- a. Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultura-erakundeak sortu eta mantentzea.
- b. Kirola sustatzea. Kirol federaturako eta guztientzako kirolerako programak.
- c. Haur, gazte eta adinekoentzako politika, aisialdia eta kirola.
- d. Kirola sustatzea. Eskola-kirolerako eta guztientzako kirolerako programak.

**7. ZEIN DA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK ZEHAZTU BEHAR DITUEN ORGANOA?**

- a. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- b. Eusko Jaurlaritza.
- c. Kupoaren Batzorde Misto.
- d. Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua.

**8. ZEINTZUK DIRA LURRALDE-MAILAKO TOKI-ERAKUNDE?**

- a. Udalerria, probintzia, uhartea (Balear eta Kanariar uhartedietan), metropolialdeak, udalerrien mankomunitateak eta autonomia-erkidegoek eratutako udalerriaz gaindiko eskualdeak zein beste erakunde batzuk.
- b. Udalerria, probintzia, uhartea, metropolialdeak, udalerrien mankomunitateak eta autonomia-erkidegoek eratutako udalerriaz gaindiko eskualdeak zein beste erakunde batzuk.
- c. Udalerria, probintzia, uhartea (Balear eta Kanariar uhartedietan), metropolialdeak, udalerrien mankomunitateak eta probintziek edo autonomia-erkidegoek eratutako udalerriaz gaindiko eskualdeak zein beste erakunde batzuk.
- d. Udalerria, probintzia, uhartea, metropolialdeak, udalerrien mankomunitateak eta probintziek edo autonomia-erkidegoek eratutako udalerriaz gaindiko eskualdeak zein beste erakunde batzuk.



## 9. ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZEIN DA ZUZENA?

- a. Udalerriko biztanleek aukeratuko dituzte zinegotziak, sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez, eta zinegotziek edo biztanleek eurek aukeratuko dute alkatea.
- b. Sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez aukeratuko dira alkateak, eta alkateak aukeratuko ditu zinegotziak.
- c. Errolda-sufragio berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez aukeratuko dira alkateak, eta alkateak aukeratuko ditu zinegotziak.
- d. Errolda-sufragio berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez aukeratuko dira zinegotziak, eta biztanleek aukeratuko dute alkatea.

## 10. ZER ADMINISTRAZIO-EGINTZA DIRA DEUSEZTAGARRI?

- a. Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenak.
- b. Aginte-desbideratze direnak.
- c. Arau-hauste penal baten ondorioz eman direnak.
- d. Arau-hauste penal direnak.

## 11. ZEIN DA HAUEN ARTEAN ERANTZUN ZUZENA?

- a. Legean ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileentzat, baina ez gai horietako interesdunentzat.
- b. Legean ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaietako interesdunentzat, baina ez gai horiek izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako langileentzat.
- c. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun naturalak direla ulertuko da.
- d. Egun bat baliouduna bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliogabea administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz, baliogabetzat hartuko da beti.



## 12. ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEARI DAGOKIONEZ, ZEINTZUK DIRA PROZEDURA AMAITZEKO AUKERAK?

- a. Ebazpena, uko egitea, eskaeraren oinarri den eskubidean atzera egitea — ordenamendu juridikoak atzera egite hori debekatzen ez badu— eta iraungitzat deklaratzeko. Prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik.
- b. Ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea — ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu— eta iraungitzat deklaratzeko. Prozedura inoiz ez da amaituko, ordea, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik.
- c. Ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea — ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu— eta iraungitzat deklaratzeko. Prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik.
- d. Ebazpena, uko egitea, eskaeraren oinarri den eskubidean atzera egitea — ordenamendu juridikoak atzera egite hori debekatzen ez badu— eta iraungitzat deklaratzeko. Prozedura inoiz ez da amaituko, ordea, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik.

## 13. ZEIN EPETAN ZUZENDU DITZAKETE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BEREN EGINTZETAKO OKER MATERIALAK, EGITEZKOAK EDO ARITMETIKOAK?

- a. Hiru urteko epean.
- b. Bi urteko epean.
- c. Edozein unetan, ofizioz.
- d. Edozein unetan, baina interesdunek eskaturik bakarrik.

## 14. SEKTORE PUBLIKOEN KONTRATUEN AZAROAREN 8KO 9/2017 LEGEAREN ONDORIOETARAKO, ZEINTZUK JOKO DIRA SEKTORE PUBLIKOEN KONTRATUTZAT?

- a. Sektore publikoko kontratutzat joko dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek kostu bidez egindako kontratuak.
- b. Euskadiko foru-aldundiak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak ez dira sektore publikoaren ataltzat joko beren kontratazio-jarduerari dagokionez.
- c. Sektore publikoko kontratutzat joko dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek egindako kontratuak, baldin eta doakoak badira.
- d. Sektore publikoko kontratutzat joko dira organismo autonomoek, unibertsitate pribatuak eta agintari administratibo independenteek egindako kontratuak, baldin eta doakoak badira.



**15. ZEIN DA, HAUEN ARTEAN, ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Ez dira joko erregulazio harmonizatukotzat isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, balioa edozein dutela ere.
- b. Erregulazio harmonizatukotzat joko dira isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, BEZik gabe 100.000 €-tik gorako balioa dutenean.
- c. Erregulazio harmonizatukotzat joko dira isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, BEZa barne 100.000 €-tik gorako balioa dutenean.
- d. Erregulazio harmonizatukotzat joko dira isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, balioa edozein dutela ere.

**16. ZEIN DA, HAUEN ARTEAN, ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Oinarrizkoak eta apartekoak dira funtzionarioen lansariak.
- b. Hirurtekoak aparteko lansariak dira.
- c. Aparteko zerbitzuengatik gain sariak oinarrizko lansariak dira.
- d. Soldata oinarrizko lansaria da.

**17. ZEIN DA, HAUEN ARTEAN, ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Foru-araua behar da foru-fundazioa eratzeko, estatutuak aldatzeko, fundazioak beste batekin bat egin edo fundazioa azkentzeko.
- b. Foru-enpresa erakunde publikoak Foru Aldundiaren erabakiaren bidez sortuko dira.
- c. Merkataritzako foru-sozietateak sortzeko, Foru Aldundiaren erabakia beharko da.
- d. Foru-erakunde autonomiadunak Foru Aldundiaren erabakiaren bidez sortuko dira.

**18. ZEIN DA, HAUEN ARTEAN, ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Foru Aldundiaren foru-dekretuak Ahaldun Nagusiak bakarrik izenpetuko ditu.
- b. Foru-aginduak dagokion foru-diputatuak izenpetuko ditu.
- c. Foru-arauak Ahaldun Nagusiak bakarrik izenpetuko ditu, eta Batzar Nagusien lehendakariak eta lehen idazkariak aldarrikatuko dituzte.
- d. Foru Aldundiaren foru-dekretuak, betiere, Ahaldun Nagusiak eta foru-diputatu guztiek izenpetuko dituzte.



**19. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO FORU-PLAN BAT ONARTUKO DU EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREKIN BAT. PLANA ONETSI AURRETIK, NORK EMAN BEHARKO DU TXOSTENA?**

- a. Emakundek.
- b. Arartekoak.
- c. Bizkaiko Batzar Nagusiek.
- d. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak.

**20. ZENBATEAN BEHIN ONARTUKO DUTE BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETĀ FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEK GARDENTASUNARI BURUZKO PLAN OROKOR ETA BAKARRA?**

- a. Urtean behin.
- b. Bi urterik behin.
- c. Hiru urterik behin.
- d. Bost urterik behin.

**21. ARAUDIA GARATU ETA BETEARAZTEA LURRALDE HISTORIKOEI DAGOKIEN ARLOETAN, LURRALDE HISTORIKOEK ZEIN AHAL IZANGO DUTE, BESTEAK BESTE?**

- a. Erakunde erkideek emandako arauak garatzekoa, foru-erakundeek emandako arauak ezin daitezkeelarik egon haietan jasotakoaren aurka.
- b. Arautze-ahala, erakunde erkideek emandako arauak lehentasunez aplikatuz.
- c. Administrazio-ahala, ikuskatzea barne.
- d. Arautze-ahala, foru-erakundeek emandako arauak beste edozeinekiko lehentasunez aplikatuz.

**22. KIROLARI BURUZKO URRIAREN 15EKO 10/1990 LEGEAK XEDATUTAKOAREKIN BAT, ZEIN EZ DA KIROLAREN KONTSEILU GORENAREN ESKUMENA?**

- a. 10/1990 Legearen ondorioetarako, kirol modalitate bat dagoela aitortzea.
- b. Espainiako Kirol Diziplinako Batzordeko kideak izendatzea.
- c. Lehiaketak kalifikatzea: ofizialak, izaera profesionalekoak eta estatuaren eremukoak.
- d. Autonomi-erkidegoekin batera, kirol instalazioen zentsua etengabe eguneratzea.



**23. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAREN ARABERA, ZER EZ DAGOKIE LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU-ORGANOEI?**

- a. Lurralde historikoko kirol-ekipamenduen errolda onartzea eta eguneratzea.
- b. Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, eta orobat kudeatzea eta mantentzea ere.
- c. Goi-mailako kirolean etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.
- d. Lurraldean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.

**24. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Euskal Autonomia Erkidegoan izango diren kirol-lehiaketak honela sailkatuko dira: kirol federatuko lehiaketak, eskola-kiroleko lehiaketak eta udal-kiroleko lehiaketak.
- b. Eusko Jaurlaritzak dagokion urteko egutegian ofizialtzat jotako lehiaketak izango dira lehiaketa ofizialak.
- c. Hamasei urtetik beherako eskola-umeentzako kirol-lehiaketak, foru-aldundietako eskola-kiroleko urteroko programetan jasota daudenak bakarrik izango dira.
- d. Kirolari federatuek euskal selekzioen eta lurralde-selekzioen deialdietara joan beharra edukiko dute lehiaketa ofizialetan eta ofizialak ez direnetan parte hartzeko edo lehiaketa horiek prestatzeko.

**25. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAREN ARABERA, ESKOLA-UMEENTZAKO KIROL LEHIAKETAK IZANGO DIRA, ORO HAR, ESKOLA-KIROLEKO URTEKO PROGRAMETAN JASOTAKOAK, ZEIN ADINEKO ESKOLA-UMERENTZAKO?**

- a. 15 urtetik beherakoentzako.
- b. 16 urtetik beherakoentzako.
- c. 15 urtetik gorakoentzako.
- d. 16 urtetik gorakoentzako.





**26. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAREN 81. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZER EGITEKO DU KIROL MEDIKUNTZAREN EUSKAL ZENTROAK?**

- a. Etorkizun handiko kirolariei osasun-kontrolak egitea.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoan antidopin-kontrola planifikatzea eta kudeatzea.
- c. Kirolaren arloko teknologia ikertzea.
- d. Euskal federazioei eta lurraldeetako federazioei aholkularitza teknikoa ematea kirolari eta osasunari buruz.

**27. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAK INDARKERIARI AURRE HARTZEARI DAGOKIONEZ EZARTZEN DUENAREKIN BAT, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea Eusko Jaurlaritzan kirol arloko eskumenak dituen sailaren egituraren barruan sortzen da.
- b. Prebentzio-ekintzak desagerraraztea da Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordearen eginkizunetako bat.
- c. Kirol instalazioetan debekatuta egongo da mota guztietako edariak sartzea eta saltzea.
- d. Kirol instalazioetan debekatuta egongo da arma eta jaurtigai oro sartzea. Halako gaiak sartu nahi dituztenei baimena emango zaie instalazioetan sartzeko, gaiok kendu ondoren

**28. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 14KO LEGEAREN ARABERA, KIROL-EKIPAMENDUAK ERAIKI, ERABERRITU, HANDITU, MANTENDU EDO USTIATZEKO DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK JASO AHAL IZATEKO, BALDINTZA BATZUK BETE BEHARKO DIRA. ZER BALDINTZA?**

- a. Ekipamenduek Kirolaren Kontseilu Gorenak onartutako araudian ezarritakoa betetzea.
- b. Kiroldegi izateko baino ez erabiltzea.
- c. Erabilera pribatu-hutserako ez izatea.
- d. Erabilera publiko hutserako izatea.

**29. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAREN 108. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ARAU-HAUSTE MOTEI DAGOKIENEZ?**

- a. Arinak, gogorrak eta oso gogorrak izan daitezke.
- b. Hutsegiteak, delituak eta irainak izan daitezke.
- c. Arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.
- d. Hutsegiteak, delituak eta kargu-hartzeak izan daitezke.



**30. EUSKADIKO KIROLAREN EKAINAREN 11KO 14/1998 LEGEAN  
XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN JOTZEN DA ARAU-HAUSTE LARRITZAT?**

- a. Indarkeriarako bultzagarri arriskutsuak diren adierazpenak eta egintzak.
- b. Eskola-umeen kirol-jarduerak foru-aldundiek baimendu gabe antolatzea edo jarduera horietan parte hartzea.
- c. Ikusle, kirolari eta kirol-instalazioetako gainerako erabiltzaileen begirunerik eza, baldin eta ordena publikoan eragiten ez badute.
- d. Prezio, beldur edo antzeko beste era batzuk erabiliz partida, proba edo lehiaketan emaitzak aldeztatik erabakitzeak ekintzak.

**31. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN  
XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua autonomia erkidegoaz gaindiko eremua hartzen duten kirol federazioei aplikatuko zaie, egoitza soziala Euskadin badute.
- b. Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde publikoak.
- c. Kirol federazioek, euren eskudantziez gain, administrazio-funtzio publikoak betetzen dituzte.
- d. Kirol federazioek honako printzipio hauek betez jardungo dute: eraginkortasuna, independentzia eta elkarren arteko deszentralizazioa eta Euskadiko administrazioekiko deszentralizazioa.

**32. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN  
XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kirol federazioek beti eskuordetu ahal izango dituzte eskuordetu zaizkien funtzio publikoak.
- b. Kirol federazioen artean, 14/1998 Legeak eta 16/2006 Dekretuak ematen dizkien funtzioak betetzean, sortzen diren auziak Eusko Jaurlaritzan kirolen arloko eskumena duen zuzendaritzak ebatziko ditu.
- c. Goragoakoak eskumena bereganatzeko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, legez ezarritako epean.
- d. Euskadiko kirol federazioek Euskadiko himnoa eta ikurrina erabili ahal izango dituzte euren euskal selekzioek parte hartzen duten lehiaketetan.



**33. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUREN 14. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEINTZUK DIRA IZAERA ADMINISTRATIBOKO ZEREGIN PUBLIKOAK?**

- a. Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, arautzea, antolatzea eta baimentzea.
- b. Federazioen kirol modalitateko goi-mailako kirolariak izendatzea.
- c. Federazioen kirol modalitateko teknikariak prestatzea.
- d. Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea beren kirol-modalitatean.

**34. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUREN 34. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEINTZUK DIRA FEDERAZIOETAKO KIDEEK BETEBEHARRAK?**

- a. Federazioko organoetan ordezkaritza izatea eta haietako kide izatea, aplikagarria den araudiaren arabera ezarritako eran, baldintzetan eta proportzioan.
- b. Kide diren federazioari buruzko eskatu bezainbesteko informazioa jasotzea, indarrean den legediarekin bat.
- c. Euskadiko selekzioek eta lurraldeko selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.
- d. Federazioak antolatutako jarduerak guztietan parte hartzea, federazioak horren gainean dituen arauen arabera.

**35. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN LIZENTZIEN BATERAGARRITASUNARI BURUZ XEDATUTAKOAREKIN BAT, LURRALDEKO ETA EUSKADIKO FEDERAZIOEK LIZENTZIAK IZAPIDETZEKO ETA EMATEKO EDO UKATZEKO BETEBEHARRA ZEIN EPETAN BETE BEHAR DUTE?**

- a. Gehienez 15 eguneko epean, behar bezala formalizaturiko eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- b. Gehienez hilabeteko epean, behar bezala formalizaturiko eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- c. Gutxienez 15 eguneko epean, behar bezala formalizaturiko eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- d. Gutxienez hilabeteko epean, behar bezala formalizaturiko eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



**36. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Lurraldeko federazioen egutegi ofiziala dagokion kirol modalitatearen euskal federazioaren egutegi ofizialaren aurretik onartu beharko da.
- b. Modalitate baten euskal federazioaren egutegi ofiziala egiteko, lurraldeko modalitate horren federazio guztiei entzungo zaie.
- c. Kirol federazioek, hala badagokio, 15 eguneko epe luzaezinean baimendu beharko dute baimena behar duten lehiaketak egitea.
- d. Kirol federazioek, hala badagokio, 30 eguneko epe luzaezinean baimendu beharko dute baimena behar duten lehiaketak egitea.

**37. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAREN 51.1 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, HAUETATIK ZEIN EZ DA KIROL FEDERAZIO BAT ONARTZEKO BIDE BAT?**

- a. Lehendik bazen federazio batean beste bat integratzea.
- b. Federazio berria sortzea.
- c. Beste federazio batetik bereiziz beste federazio bat sortzea.
- d. Aurretik baziren beste bi federaziok edo gehiagok bat egitea.

**38. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN BATZAR NAGUSIARI BURUZ XEDATUTAKOAREN ARABERA, HAUETATIK ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Ohiz kanpoko saioan bilduko da hauteskundeak egiteko.
- b. Ohiko bilkuran batzartuko da estatutuak eta arautegiak onesteko.
- c. Ohiz kanpoko saioan bilduko da kontuen egoera-orriak eta aurrekontua onesteko.
- d. Ohiko bilkuran batzartuko da federazioa desegiteko.

**39. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde publikoak, euren eskudantziez gain, administrazio funtzio publikoak betetzen dituztenak
- b. Euskadiko federazioen eginkizunetako bat da bere kirol modalitatea ordezkatzeari autonomia-eremuan.
- c. Euskadiko federazioen eginkizuna da euren kirol modalitateari dagozkion federazio lizentziak izapidetzea.
- d. Federazioetako bakoitzak baimendu eta antolatu ahal izango ditu lehiaketa mistoak, non parte hartuko duten federazioko bertako kirolariek eta federaziokoak ez direnek.



**40. KIROL-KLUBEI ETA KIROL-ELKARTEEI BURUZKO EKAINAREN 22KO 163/2010 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kirol-klub bat eratzeko, beharrezkoa izango da eraketa-akta bat sinatzea, hain justu ere hiru pertsona fisiko edo juridikok, pribatu edo publikoek, zeintzuk obratzeko gaitasuna izan beharko baitute.
- b. Kirol-klub bat eratzeko, beharrezkoa izango da eraketa-akta bat sinatzea, hain justu ere bost pertsona fisiko edo juridikok, pribatu edo publikoek, zeintzuk obratzeko gaitasuna izan beharko baitute.
- c. Kirol-klubak ez du eskuratuko nortasun juridikoa eta obratzeko gaitasun osoa, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskripzioa formalizatu arte.
- d. Klub bat eratzeko erabakia bakarrik formalizatu ahal izango da agiri publiko bidez.

**41. EKAINAREN 22KO 163/2010 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREKIN BAT KIROL KLUBEK ORDENAN ETA EGUNERATUTA EDUKI BEHAR DITUZTEN LIBURUETATIK ZEIN DAGO?**

- a. Falta eta diziplina-zehapenen eta bazkideen erregistro-liburua.
- b. Kontratuen erregistro-liburua.
- c. Bazkideen erregistro-liburua.
- d. Diziplina-zehapenen erregistro-liburua.

**42. ESKOLAKO KIROLARI BURUZKO UZTAILAREN 1EKO 125/2008 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbideko hautemate-jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina haurren kategoriako lehen urteari dagokiona da.
- b. Errendimenduari ekiteko ibilbideko hautemate-jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina kimuen kategoriako lehen urteari dagokiona da.
- c. Errendimenduari ekiteko ibilbideko teknifikazio-jardueretan parte hartzeko gutxieneko adina haurren kategoriako lehen urteari dagokiona da.
- d. Kirol arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak onartuko ditu eskolako kirol jarduerak arautuko dituzten joko eta lehiaketa araudiak, aldez aurretik Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak emandako txostena ikusi ostean.



**43. ESKOLAKO KIROLARI BURUZKO UZTAILAREN 1EKO 125/2008 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZERTARAKO SORTU ZEN ESKOLAKO KIROLAREN EUSKAL BATZORDEA?**

- a. Bateragarri egiteko eskolako kirolaren euskal eredu homogeneoa eta lurralde historiko bakoitzeko bereizgarritasunetara egokitutako eredu.
- b. Lurralde historikoetako foru organoek eskatuta, eskola kirolari buruzko azterlanak eta txostenak egiteko.
- c. Ikuskatze-lana egiteko, eskola kirolaren arloko legezko eta erregelamenduzko xedapenak betetzen direla kontrolatuz.
- d. Entrenamenduak, lehiaketak eta eskola kiroleko programetako gainerako jardueretan laguntzen duten pertsonen zuzendutako prestakuntza-eskaintza sustatzeko.

**44. KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN AZAROAREN 7KO 220/2000 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN EGINKIZUN BAT?**

- a. Lurraldeko eta Euskadiko kirol federazioak eratzeko nahitaezko txostena onestea.
- b. Kirolariak, teknikariak edo epaileak goi-mailakotzat kalifikatzeko irizpide nahiz baldintzei buruzko informazioa ematea.
- c. Kontseiluaren urteko jarduera-memoria egitea.
- d. Euskal Autonomia Erkidegorako kirol politika orokorraren jarraibideak proposatzea.

**45. EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNARI BURUZKO ABENDUAREN 10EKO 289/2002 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kirol Erakundeen Erregistroan dauden euskal kirol federazioen % 70ek, gutxienez, osatu behar du Euskal Kirol Federazioaren Batasuna.
- b. Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna elkarte-izaeradun entitate pribatua da, nortasun juridikoa duena.
- c. Eratze-prozedura amaituta, Euskal Kirol Federazioen Batasuneko kide izan nahi duten Euskadiko kirol federazioek borondate hori erabaki beharko dute, beren zuzendaritza-batzaren gehiengoaren bidez.
- d. Kirolaren Euskal Kontseiluak eskumena du Euskal Kirol Federazioen Batasunari emandako onespena baliogabetzeko, baldin eta entitateak legez esleitu zaizkion zereginak betetzen ez baditu.



**46. GOI MAILAKO KIROLARI BURUZKO UZTAILAREN 20KO 203/2010 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREKIN BAT, ZEIN BALDINTZA BETE BEHAR DA, BESTEAK BESTE, GOI-MAILAKO KIROLARI IZATEKO?**

- a. Dagokion kirol-jarduera egiten jarraitzea, goi-mailako kirolari deklaratzeko ebazpena indarrean jartzen den egunetik hasi eta hurrengo hamabi hilabeteetan
- b. Euskal herritar-izaera politikoa izatea Autonomia Estatutuan xedatutakoaren arabera, interesdunak edo dagokion federazioak eskaera aurkezten duen eguna baino bi urte lehenagotik, gutxienez.
- c. 14 urte edo gehiago beteta izatea; alde horretatik, baloratzen diren kirol-merezimenduak lortu dituen momentuan kirolariak duen adina hartuko da aintzat.
- d. Euskal kirol-federazio batek izapidetutako kirol-lizentzia baliatuta lehiatzea.

**47. KULTURAKO SAILBURUAREN EKAINAREN 20KO AGINDUAK (HAREN BIDEZ, GOI-MAILAKO KIROLARI BURUZKO UZTAILAREN 20KO 203/2010 DEKRETUAN EZARRITAKO KIROL-IRIZPIDE TEKNIKOAK ALDATZEN DIRA) XEDATUTAKOAREKIN BAT, EBALUAZIO BATZORDEAK MUNDUKO TXAPELKETA BATEAN LORTUTAKO EMAITZA BALORATU DEZAN, TXAPELKETA, BESTEAK BESTE, ZEIN BALDINTZA BETE BEHAR DU?**

- a. Programa olimpikoan sartuta ez dauden C taldeko modalitateen taulako lehiaketen kasuan, gutxienez 10 herrialdek parte hartzea.
- b. Programa olimpikoan sartuta ez dauden C taldeko modalitateen taulako lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialdek parte hartzea.
- c. Europako Federazioak antolatu izana.
- d. Programa olimpikoan sartuta ez dauden C taldeko modalitateen taulako lehiaketen kasuan, gutxienez 12 herrialdek parte hartzea.

**48. EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN ETA LURRALDE FEDERAZIOEN HAUTESKUNDE-ERREGELAMENDUAK PRESTATZEKO ETA HAUTESKUNDEAK EGITEKO IRIZPIDEAK FINKATZEN DITUEN KULTURAKO SAILBURUAREN OTSAILAREN 19KO AGINDUAK XEDATUTAKOAREKIN BAT, LURRALDEKO KIROL FEDERAZIOEK NOIZ IZAN BEHAR DITUZTE AMAITUTA BILTZAR OROKORRERAKO HAUTAKETA-PROZESUAK?**

- a. Urte olimpiko bakoitzeko urriaren 31 baino lehen.
- b. Urte olimpiko bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.
- c. Urte olimpikoaren ondoko urteko urtarrilaren 31 baino lehen.
- d. Urte olimpiko bakoitzeko azaroaren 31 baino lehen.



**49. EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN ETA LURRALDE FEDERAZIOEN HAUTESKUNDE-ERREGELAMENDUAK PRESTATZEKO ETA HAUTESKUNDEAK EGITEKO IRIZPIDEAK FINKATZEN DITUEN KULTURAKO SAILBURUAREN OTSAILAREN 19KO AGINDUAK XEDATUTAKOAREKIN BAT, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Hauteskunde Batzordea kide anitzeko organo gisa eratzen bada, pertsona fisiko kopuru bakoiti batez osatuko da, zazpi gehienez.
- b. Hauteskunde Mahaiko kideak, eta horien guztien ordezkioak, federazio bakoitzeko biltzar orokorrak izendatuko ditu.
- c. Hauteskunde Batzordeak behin-behinean onartutako hauteskunde erroldari buruzko alegazioak egiteko epea bost egun baliodun izango da.
- d. Hauteskunde Batzordea kide bakarrekoa izan daiteke.

**50. EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN ETA LURRALDE FEDERAZIOEN HAUTESKUNDE-ERREGELAMENDUAK PRESTATZEKO ETA HAUTESKUNDEAK EGITEKO IRIZPIDEAK FINKATZEN DITUEN KULTURAKO SAILBURUAREN OTSAILAREN 19KO AGINDUAK XEDATUTAKOAREKIN BAT, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Lurralde eta euskal federazioen hauteskunde prozesuetan, posta bidezko botoa ahalbidetu behar da.
- b. Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsioak Hauteskunde Mahaiari berari zuzenduko zaizkio, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari dagozkion kontuetan izan ezik. Errekurtsioak aurkezteko epea bost egun baliodunekoak izango da.
- c. Hauteskunde errolda atalka antolatuko da, estamentuka.
- d. Hauteskunde Mahaiak errekurtsioen ebazpena emango du, errekurtsioa aurkezten denetik bost egun balioduneko epean, gehienez.

**51. KIROLEKO INDARKERIAREN AURKAKO BATZORDEA ARAUTZEKO DEN MAIATZAREN 25EKO 94/2004 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikita dago eta sail horren egitura hierarkikoan sartuta dago.
- b. Deialdiak batzordeburuaren aginduz egingo dira, gutxienez, zazpi egun naturaleko aurrerapenarekin.
- c. Erabakiak hartzeko botoa zuzenekoak, pertsonala eta eskuordegarria izango da, eta sekretua izango da, edozein kidek batzordeburuari hala izatea eskatzen badio.
- d. Boto partikularrak bilera amaitu eta, gehienez, hiru egun naturaleko epean bidali behar zaizkio, idatziz, Batzordeko Idazkaritzari.





**52. SUSTAPEN OLINPIKORAKO EUSKAL BATZORDEA SORTZEN ETA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 18KO 85/2004 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordearen eginkizunetako bat Euskal Herriko kirolak sustatzea da.
- b. Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordeko buruak eskumena du, besteak beste, akta, txosten eta erabakien egiaztagiriak egiteko.
- c. Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordeko kideek ordainsariak jasoko dituzte. Dena dela, bileretara joateagatik, joan-etorriko dietak eta kalte-ordainak ordainduko zaizkie.
- d. Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea ohiko bilkuran batzartuko da, hiru hilekoan behin, gutxienez, urtean.

**53. EUSKADIKO KIROL FEDERAZIOEN URTARRILAREN 31KO 16/2006 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA HAUTESKUNDE MAHAIAREN EGINKIZUNA?**

- a. Aurkeztutako hautagai-zerrendak aldarrikatu eta argitaratzea.
- b. Hautesleen errolda onartzea.
- c. Bozkatzen duten pertsonen identitatea eta hautesle izaera egiaztatzea.
- d. Hauteskundeei eta haien emaitzei zuzenean eragiten dien beste edozein gai.

**54. ZEIN URTETAN SORTU ZEN EUROPAKO KONTSEILUA?**

- a. 1977. urtean.
- b. 1949. urtean.
- c. 1950. urtean.
- d. 1959. urtean.

**55. NAZIOARTEKO OLINPIAR BATZORDEARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Parisen eratu zen, 1884. urtean.
- b. Haren lehen presidentea J. Pierre de Coubertin baroia izan zen.
- c. Guztiontzako kirolaren garapena sustatuko du.
- d. Irabazteko asmorik gabeko gobernu-erakundea da.



**56. FUTBOL-PARTIDEN ETA BESTELAKO KIROL EKITALDIEN ARLOKO BABES, SEGURTASUN ETA ARRETAREN PLANGINTZA INTEGRATUARI BURUZKO ITUN BERRIAK (SAINT DENNIS ITUNA) ZEIN JOTZEN DITU FUNTSEZKO JARDULETZAT?**

- a. Gobernua, udalerrriak, poliziak, futboleko agintariak, zaletuak eta toki-komunitateak.
- b. Gobernua, futboleko agintariak, gobernuaren osasun-sistemak, zaletuak, udalerrriak eta toki-komunitateak.
- c. Gobernua, udalerrriak, komunikabideak, poliziak, zaletuak eta toki-komunitateak.
- d. Gobernua, estatuko immigrazio-organismoak, udalerrriak, poliziak, futboleko agintariak eta komunikabideak.

**57. EUROPAKO KONTSEILUAREN KIROL ETIKARI BURUZKO KODEAN XEDATUTAKOAREKIN BAT, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA JOKO GARBIA DELA ETA?**

- a. Joko garbiak erabateko lehentasuna izan behar du umeez zein nerabek kirolean duten esperientzian.
- b. Europako Batzordeko herrialdeetako presidenteez hartutako asmo adierazpen bat da.
- c. Joko garbia sortzeko ardura duten erakundeak eta/edo pertsonak hauek dira: kirol erakundeak, kirolari lotutakoak, gobernuak eta pertsonak.
- d. 1992. urtean sinatu zen.

**58. OME-REN ARABERA, GIZABANAKO BAKOITZAREN GAITASUNERA EGOKITUTAKO ESKALA BATEAN (0TIK 10ERA), ZELAKO JARDUERA DA 7 ETA 8 BITARTEKOA?**

- a. Moderatua.
- b. Intentsoa.
- c. Indartsua.
- d. Submaximoa.

**59. BIHOTZ- ETA ARNAS-FUNTZIOA, GIHARREN SASOI ONA ETA HEZURREN OSASUNA HOBETZEKO ETA KUTSATZEN EZ DIREN GAIXOTASUNAK ETA DEPRESIOA IZATEKO ARRISKUA MURRIZTEKO (18-64 URTEKO HELDUAK), ZER GOMENDATU ZUEN OME-K?**

- a. Gutxienez, astean 150 minutuz aerobic-jarduera fisiko moderatuan aritu beharko lukete.
- b. Aerobic-jarduera 30 minutuko saioetan egingo da, gutxienez.
- c. Astean bi egunetan, gehienez, gihar-talde handiak sendotzeko ariketak egin beharko lituzkete.
- d. Gutxienez, astean 65 minutuz aerobic-jarduera fisiko indartsuan aritu beharko lukete.



**60. KONTUAN HARTUTA ZER XEDATZEN DEN EUROPAKO KIROL ITUNEAN, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- a. Kirolaren definizioaz kanpo geratzen da goi-mailako errendimenduko lehiaketetan emaitzak lortzea.
- b. Haren artikuluetan, parte-hartzearen sustapena, oinarriaren sorrera eta errendimenduaren hobekuntza aipatzen dira, besteak beste.
- c. Guztientzako Europako Kirol Ituna gobernuen kirol-arloko politiken oinarria izan zen.
- d. 1992. urtean sinatu zen.

**61. ZEIN DA EDO DIRA ESPAINIAKO SEKTORE PUBLIKOAREN BEREZKO ERAKUNDE?**

- a. Espainiako Batzorde Olimpikoa.
- b. Kirol federazioak.
- c. Kirolaren Kontseilu Gorena.
- d. Kirol arloko elkarte-entitateak.

**62. «DEPORTE, GESTION Y MUNICIPIO. ASPECTOS CLAVE, DEPORTE FEDERADO Y MUNICIPIO» ARGITALPENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Hautaketa-prozesuen ondorioz, kirol egituratuan, eskola kirolean eta federatuan kirol egiten duten biztanleen kopurua gorantz doa, etengabe, kimuetatik seniorretara.
- b. Federatutakoen ehunekoa kirolari guztien % 20tik gorakoa da.
- c. Kirolari federatua dagoen adinean kirol-jarduera fisikoaren ordezkoko aukerek ez dute eragin handirik.
- d. Klubek badute eginkizun sozial bat, administrazioak arazorik gabe bere gain har dezakeena.

**63. «LA SITUACIÓN DEL DEPORTE EN EUSKADI: UNA VISIÓN GENERAL» ARGITALPENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- a. Diziplina-araubidea arautzen duen indarreko dekretua 2013koa da.
- b. Ereduaren ikuspegi kritikoan markatutako ardatzak hauek dira: eskolak klubetako aurka (federazioak); espezializazio goiztiarra hastapen kirol-anitzaren aurka, eta administrazioaren esku-hartzea jardueraren liberalizazioaren aurka.
- c. Ezarritako kudeaketa-ereduen arabera, 4. mailako kudeaketa-entitateetako bat mankomunitatea edo kuadrilla da.
- d. Etorkizunerako ezarritako erronketako bat hezkuntzaren arloan inplikazio handiagoa izatea da, bai eta zentroko kirol proiektuetarako beharrezana ere.



**64. «LA SITUACIÓN DEL DEPORTE EN EUSKADI: UNA VISIÓN GENERAL» ARGITALPENAREN ARABERA, ZEIN EZ DA UDAL KIROLAREN ERRONKA BAT?**

- a. Emakumeak kirol jarduerako jokabide aktiboetan sartzea.
- b. Ekitate-ikuspegia sartzea.
- c. Jarduera fisikoaren praktikak dituen onurak berrestea.
- d. Krisi ekonomikoari aurre egitea.

**65. «DEPORTE, GESTION Y MUNICIPIO. ASPECTOS CLAVE, DEPORTE FEDERADO Y MUNICIPIO» ARGITALPENAK ZER EZARTZEN DU KIROL PROFESIONALARI BURUZ?**

- a. Generoaren araberako liga bat egon behar da kirolari profesionalen lehiaketa bat aitortuta daukan kirol bakoitzean.
- b. Kirolaren Kontseilu Gorenak kirol modalitate bat profesional gisa kalifikatzeak berez dakar kirol sozietate anonimoak (KSA) eta profesionalen ligak berehala agertzea.
- c. KSAk ez daude behartuta dagokion Espainiako federazioaren esku jartzera beren kirol plantillako kideak.
- d. KSAen gutxieneko kapitala zehazteko irizpideak dagokion Espainiako federazioak ezartzen ditu.

**66. «BERDINTASUNEAN LANEAN EAE-KO FEDERAZIOEN ESPARRUAN: GOGOETA GIDATUZ, EKINTZARA IGAROTZEKO» ARGITALPENEAN EKINTZARAKO PROPOSATUTAKO LAU GAI-MULTZOEN ARTEAN, ZEIN EZ DAGO JASOTA?**

- a. Kudeaketa eta gobernua.
- b. Balioak eta ahalduntzea.
- c. Genero arloko kirolari buruzko legeriaren antolaketa arduratsua.
- d. Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

**67. «OINARRIZKO KIROLEAN LAN JARDUERAREN ETA BOLUNTARIOEN JARDUERAREN ERREGULARIZAZIOARI BURUZKO GIDA»REN ARABERA, ZEIN DIRA LAN-HARREMANAREN BEREZKO EZAUGARRIAK?**

- a. Zerbitzuak ordaindua, nahitaezkoa, besteren konturako eta mendekoa izan behar du.
- b. Zerbitzuak boluntarioa, besteren konturako, ordaindua eta independentea izan behar du.
- c. Zerbitzuak norberaren konturako, ordaindua, mendekoa eta boluntarioa izan behar du.
- d. Zerbitzuak ordaindua, mendekoa, boluntarioa eta besteren konturako izan behar du.



**68. «OINARRIZKO KIROLEAN LAN JARDUERAREN ETA BOLUNTARIOEN JARDUERAREN ERREGULARIZAZIOARI BURUZKO GIDA»REN ARABERA, KIROL ERAKUNDEETAKO LAN-JARDUERAN NORI APLIKATU BEHAR ZAIO 1006/1985 DEKRETUA (KIROL PROFESIOALEN LANARI BURUZKOA)?**

- a. Kirolariei bakarrik.
- b. Teknikariei eta kirolariei bakarrik.
- c. Kirolariei, koordinatzaileei, prestatzaile fisikoei eta fisioterapeutei.
- d. Kirolariei, koordinatzaileei, prestatzaile fisikoei eta kirol erakundeetako zuzendariei.

**69. «GIDA, TEKNOLOGIA DIGITALEN ERABILERA ARDURATSUA IZATEKO KIROL-ERAKUNDEETAN ADINGABEEKIN» GIDAKO TEKNIKARIEN DEKALOGOAK ZER DIO?**

- a. Izan zaitez entrenatzen dituzun adingabeen «laguna» sare sozialetan.
- b. Erabili difusio-zerrendak, taldeak erabili beharrean, komunikazioaren helburua zerbaiten berri ematea soilik bada.
- c. Bilatu entrenatzen dituzun adingabeen konplizitatea, inoiz ere ez gurasoena.
- d. Ezarri smartphone-aren erabilera murrizteko arauak; ez adostu arau horiek entrenatzen dituzun adingabeekin.

**70. JULIO CALLEJA GONZALEZ ETA ALBERTO LORENZO CALVO DOKTOREEN «KIROLAREN GARAPENA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK» AZTERLANAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Nahita egindako jardunaren teoriaren arabera, kirolariaren trebetasuna kirolariaren beraren ezaugarri genetikoek baldintzatzen dute, funtsean.
- b. Entrenatzaileak ezagutza optimoa sustatzen duen ingurune bat lortzeko duen trebetasuna ez da funtsezko faktore bat kirolaren garapenerako.
- c. Espezializazio goiztiarrak eta kanpoko eragile baten (entrenatzaileak) kontrolpean eginiko entrenamendu oso egituratuak handitu egiten dute haurraren berezko motibazioa.
- d. Ikerketek diotenez, benetako txapeldunak bereizten dituzten faktore psikologikoak daude.

**71. «KIROL ERAKUNDEAK SORTU ETA KUDEATZEKO GIDALIBURUA: KLUBAK» ARGITALPENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Epailleak prestatzea lurralde federazioen eginkizunetako bat da.
- b. Euskal federazioek kuota gehigarri bat kobratu ahal izango diete federatuei, beren zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.
- c. Lurralde federazioek beren lurraldeko kirol lizentziak ematen dituzte.
- d. Federazio baten gutxienerako egitura lehendakaritza eta zuzendaritza batzordea dira.



**72. «KIROL ERAKUNDEAK SORTU ETA KUDEATZEKO GIDALIBURUA: KLUBAK», ARGITALPENAREN ARABERA, KIROL KLUBEN LEGEZKO BETEBEHARRA DA LIBURU BATZUK IZATEA ANTOLATUTA ETA EGUNEAN. ZER LIBURU?**

- a. Bi liburu baino ez: bazkideen erregistro-liburua eta ondasunen inbentarioaren liburua.
- b. Hiru liburu baino ez: kide anitzeko organoen akta-liburua, zor-tituluen edo ondarearen parte alikuotaren erregistro-liburua eta bazkideen erregistro-liburua
- c. Bi liburu baino ez: bazkideen erregistro-liburua eta kide anitzeko organoen akta-liburua.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**73. JULIO CALLEJA GONZALEZ ETA ALBERTO LORENZO CALVO DOKTOREEN «KIROLAREN GARAPENA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK» AZTERLANAREN ARABERA, KIROLARIAK EGITEN DITUEN ENTRENAMENDUEN ETA JOKOEN EGITURA ETA EDUKIAK EBOLUZIONATUZ DOAZ BANAKOAREN GARAPENEAN ZEHAR; BILAKAERA HORRETAN 4 FASE-MOTA BEREIZTEN DIRA. ZEIN DA HAUEN ARTEAN ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Jolasten hastea, kirol askea, joko egituratua eta entrenamendu egituratua.
- b. Jolasten hastea, joko askea, joko egituratua eta entrenamendu egituratua.
- c. Joko askea, nahita eginiko jokoa, entrenamendu egituratua eta nahita eginiko entrenamendua.
- d. Jolasten hastea, joko egituratua, entrenamendu egituratua eta nahita eginiko entrenamendua.

**74. ZEIN DA ZUZENA BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOARI DAGOKIONEZ?**

- a. Kirol- eta gizarte-fundazio bat da, izaera publikokoa.
- b. Taldeekin edo kirolariekkin parte hartu ahal izango du errendimenduko kirol-lehiaketa ofizialetan.
- c. Bizkaiko Ahdun Nagusia da burua.
- d. Patronatuko buruari dagokio urteko kontuak onestea.

**75. HAUETATIK, ZEIN EZ DA BIZKAIKO KIROL FEDERAZIOEN ELKARTEAREN XEDEA?**

- a. Bizkaiko kirolaren interesak defendatzea.
- b. Oro har, kirola bultzatzea, sustatzea eta hedatzea.
- c. Printzipio olinpikoen errespetua bultzatzea, printzipio horiek bideratuz eta zainduz.
- d. Kirol-ekipamenduen arlokako lurralde planak gauzatzeko baliabide ekonomikoak lortzea.



**76. ZEIN EZ DA BIZKAIKO KIROL FEDERAZIOEN ELKARTEKO ZUZENDARITZA-BATZORDEAREN EGINKIZUNA?**

- a. Elkartearen kudeaketa arrunta zuzentzea.
- b. Elkarteko bazkideen kirol-programak onartzea.
- c. Bazkideek egiten dituzten proposamenei eta iradokizunei erantzutea.
- d. Batzar Orokorrak erabaki espresu baten bidez ematen dizkion eskumenak baliatzea.

**77. «BIZKAIKO IKASLEEN KIROL OHITURAK» ARGITALPENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Antolatutako kirol-praktikaren tasa altuenak 6 eta 10 urte bitarteko tartean ematen dira.
- b. Eskola-umeen % 10ek ez du kirol egiten.
- c. Eskola-umeen % 65ek antolatutako kirola egiten du.
- d. Zentroaren titulartasunak (publikoa edo pribatua) ez du eraginik antolatutako kirol-praktikaren ehunekoan.

**78. «BIZKAIKO IKASLEEN KIROL OHITURAK» ARGITALPENEAN JASOTAKOAREN ARABERA, ZER ALDAGAI HARTU ZIREN KONTUAN LAGINKETA EGITEKO?**

- a. Zentroaren tamaina, ikasturtea, sexua eta ikastetxe mota.
- b. Zentroaren tamaina, ikasturtea eta sexua.
- c. Zentroaren tamaina, ikastetxe mota eta eremu geografikoa.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**79. «BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ESKOLA KIROLAREN EREDUARI EGINDAKO EKARPENAK» ARGITALPENEAN, ZER EZARTZEN DA ERRONKA GISA?**

- a. Eskola Kirolaren eskaintza berrikusteko prozesua egitea.
- b. Bizkaiko Eskola Kirola kalitateko erreferente hezitzaile gisa kokatzea.
- c. Bizkaian Eskola Kirolaren Plan Estrategikoa egitea.
- d. Ebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako mekanismoak ezartzea.



**80. «ESKOLAKO KIROL PROIEKTUA» ARGITALPENEAN JASOTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Jardueren urteko planak ikasturtean zehar egindako jardueren ebaluazioa jasotzen du.
- b. Jarduketa-planak hauek dira: kirol-plana, inbertsioen plana, komunikazio-plana eta osasun-plana.
- c. Urteko memoriak osagai hauek ditu: sarrera, adierazleak, jarduera eta taldearen araberako laburpena, antolaketaren inguruko ezaugarriak eta hobetzeko proposamenak.
- d. Jarduketa-planek oinarritzko printzipio hauek izan behar dituzte ardatz: partaidetza, lehiakortasuna, koordinazioa, iraunkortasuna, ekitatea eta euskara.

**81. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN «HEZIKI: BIZKAIKO KIROLERAKO KIROL BAT» ARGITALPENAREN ARABERA, ZER DA HEZIKI JARDUERA?**

- a. Benjamin etapari (6-8 urte) zuzendutako hastapen-jarduera bat da.
- b. Aurrebenjamin eta benjamin etapei zuzendutako irakaskuntza-jarduera bat da.
- c. 4 eta 6 urte bitarteko umeei bakarrik zuzendutako hastapen-jarduera bat da.
- d. Aurrebenjamin etapari bakarrik zuzendutako hastapen-jarduera bat da.

**82. HEZIKIREN ARAUDIAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Jokalekuaren dimentsioak 6 x 6 dira.
- b. Ateak alboko 2 zulo, erdiko 2 zulo eta ateko zuloa izango ditu.
- c. Arbitroak baloia airera botatzen duenean hasiko da partida.
- d. Partidetan, 7 minutuko hiru zati egongo dira.

**83. ESKOLA KIROLA PROGRAMAREN 2018/2019 DENBORALDIA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a. Castro Urdialesen-bizi-den-eta-Bizkaian-eskolatuta-dagoen-ume-batek-ez-du-baimenik-beharko-Eskola-Kirola-programan-parte-hartzeko.
- b. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek ezin izango dute izena eman kirol anitzeko jardueran.
- c. Eskola Kirola programaren aseguruak kalte-ordaina emateko aseguru eta erantzukizun zibileko aseguru baino ez ditu estaltzen.
- d. Lehiaketa jardueretarako dirulaguntzak jaso ahal izateko, futboleko kirol modalitateetan, bai gizonezkoenean bai mistoan (F7 eta F11), Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza duten kirol-elkarte edota -klubek aurreko denboraldian izena emandako kirolarien % 75 mantendu beharko dute.





